

Iankide

39

AGURRA

Azaroaren 28an, udazkeneko aize bolaren oihartzun ozenak ezitalia, eman du asken hotsa, bere bigarren jaioterria eta ekintzalekoa izan den Arrasaten.

Gerrostean, 41-ean etorri zen honuntza, 26 urteko apaiz gazte argal eta lerdena zelarik. Ordurako gorriak eta bost ikusia zuen "Eguna" egunkariko kazetari gaztea izan zenak: ezpetxea eta afusilaturik eraila izateko arrixku hurbilan besteak beste.

Hargatik ez zion amore eman gerrondoko giro hits - eta zanakorrari. Aitzitik egoera berriari ahal -- zen bezala egokituz, etenik gabeko ekintza apal bezain setati baten bitartez, lan ikaragarria bururatu zuen 35 urte luzeetan zehar. Inola ere ez bakarrean egindako behingo lan pasakorra, elkarlanean -beti elkarlanean- gorpuztutako erakunde tinko batetan oinarrituriko lan eskerga. Gerrostean Euskal herriaren jeinuak sortutako bizpairu ekintza kolektibo miragarrien artean bat zalantzarik gabe.

Bere itxura serio eta agian lehorraren azpitik, Dn. José Maria bihotz handiko gizona zen. Modu berean, bere ekintzaren ekonomiazko eta industriazko itxurazpian, humanismo berri baten izpiritua eta mezua agertzen da: bere buruaren jabe izango den Herri bat osatu, adiskidantza eta elkarlanean.

Agur Egun Handirarte.